



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko otsailaren 15a

26. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-23/MOC-00013. Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Nafarroako ikastetxe ez-unibertsitarioetako jantokiak arautzen dituen araudia alda dezan, halako moduz non dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten ikasleen artean sartuko baitira despulazio-arrisku muturrekoa eta bizia duten udalerrietan bizi diren ikasleak. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (2. or.).
- 10-23/MOC-00014. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa gaurkotu dezan. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (3. or.).
- 10-23/MOC-00015. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da berehala har ditzan bere gain, bere aurrekontuaren kontura, Iruñeko eta Iruñerriko begizta desagerrarazteko obra guztiak, Etxebakoizko tren-geltoki berriko obrak eta Volkswagen Navarra zeharkatzen duen trenbidea desagerrarazteko obrak barne. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- 10-23/MOC-00016. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan Gastiaingo Errota Berriko presa eraits. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 10-23/MOC-00017. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Alderdi Karlistari dago-kion aitortza publikoa eta erreparazioa egin diezaion, 1976ko maiatzaren 9ko gertakarien biktima politiko nagusia baita. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (7. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 6/23 Ebazpena, 2023ko otsailaren 9koa, Nafarroako Arartekoarena; honen bidez Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza (C maila) bat merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdian onartutakoen behin betiko zerrenda onesten da. Plaza horren deialdia enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan egin da (10. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-23/MOC-00013. Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Nafarroako ikastetxe ez-unibertsitarioetako jantokiak arautzen dituen araudia alda dezan, halako moduz non dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten ikasleen artean sartuko baitira despopulazio-arrisku muturrekoa eta bizia duten udalerrietan bizi diren ikasleak.

GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita Nafarroako ikastetxe ez-unibertsitarioetako jantokiak arautzen dituen araudia alda dezan, halako moduz non dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten ikasleen artean sartuko baitira despopulazio-arrisku muturrekoa eta bizia duten udalerrietan bizi diren ikasleak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Duela urte batzuetatik, Pirinioetako zenbait familia Pirieskolak plataforman lanean ari dira despopulazio-arrisku muturrekoa eta bizia duten

herrietako landa-eremuko eskola-jantokietan dagoen arazoa konpontzeko xedez.

Landa-eremuko ikastetxeak, ahal dela, erdian dauden herrietan kokatzen dira, eta ez herri jendetsuenetan. Logikoki, zenbat eta txikiagoa izan ikastetxea, orduan eta garestiagoa da jantoki-zerbitzua, gastua familia gutxiagoren artean banatu behar baita. Hori horrela, kuotak oso altuak izaten dira.

Arazoak ez die familia guztiei berdin eragiten; izan ere, garraiatutako ikasleek gastu-muga bat dute, eta hortik gorako gastuak Hezkuntzak bere gain hartzen ditu. Ez da hori gertatzen ikastetxea non dagoen eta herri horretan bizi diren ikasleekin, horiek ez baitira garraiatuak; hain zuzen, kasu batzuetan 10 edo 14 € ordaindu behar dituzte eguneko.

Plataformak bilerak egin ditu Hezkuntza Departamentuarekin, Eskola Kontseiluko lehendakariarekin eta Proiektu Estrategikoetako arduradunekin, eta helarazi zaie irtenbide bat lortzeko araua aldatu beharko litzatekeela; hau da, foru dekretu berri bat egin beharko litzateke, Nafarroan despopulazio-arriskua duten herrietako ikasleak ere onuraduntzat hartuko dituen.

Pirinioaren arazo zehatzez haratago, eta Nafarroa osoan egin den azterketaren arabera, 8 ikastetxek (eskualdekoak eta unitarioak) dute arazo hori. Despopulazio-arrisku muturrekoa eta bizia duten herrietako ikastetxeak honako udalerritu hauetan daude: Erro, Aurizberri, Luzaide, Garralda, Otsagabia, Erronkari, Goizueta eta Jauntsarats.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 110.000 euroko partida bat dago 1.500 biztanle baino gutxiagoko herriei dirulaguntza bat emateko, baimendutako eskola-jantokietako ikasle ez-garraiatuei zuzenduta. Dena den, partida horren banaketa-irizpideak aldatu behar dira despopulazio arriskuan dauden landa-eremuei bereziki arreta emateko, 2023rako aurrekontu-akordioak jasozten duenarekin bat.

Horrez gain, akordioak egiturazko neurriak hartzeko aukera ere jorratzen du, dirulaguntza koiunturalez haragokoak: “Hezkuntza Departamentuak konpromisoa hartzen du, kasuan-kasuan, eskola-jantokien araudia berrikusi eta aldatzeko, gutxienez arrazoizko diru-tarte bat bermatze aldera, errenta oinarri hartuta, ikasle ez-garraiatuek ordaindu beharreko kuotetan hainbesteko alderik egon ez dadin, arreta berezia jarrita despopulazio arriskuan dauden landa-eremuei”.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Nafarroako ikastetxe

publiko ez unibertsitarioetako jantokiak erregulatzeko eskubidea duten ikasleen artean sartzeko despopulazio-arrisku muturrekoa eta bizia duten udalerrietan bizi diren ikasleak, hala eskualde-ikastetxeetakoak nola unitarioetakoak, baldin eta eskola-jantokiaren zerbitzua eskatzen badute, gutxienez bermatuta arrazoizko diru-tarte bat, errenta oinarri hartuta, ikasle ez-garraiatuek ordaindu beharreko kuotetan hainbesteko alderik egon ez dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du departamentuen arteko ekinez lan egin dezan landa-eremuko ikastetxeak sendotzera, landa-eremuan lan-bizitza eta familia bateragarri egitea erraztera eta despopulazioaren aurka borrokatzera zuzendutako neurri eraginkorrak hartze aldera.

Iruñean, 2023ko otsailaren 8an

Foru parlamentariak: María Solana, Bakartxo Ruiz, Marisa de Simón

10-23/MOC-00014. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa gaurkotu dezan.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa gaurkotu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lehendakartzako Batzordean eztabaidatzeko:

2013ko ekainean, “Nafarroan emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa” onetsi zuen Nafarroak. Beharrezkoa zen praktika hori pairatzen zuten emakumeei erantzun integrala ematea eta “jorraztea emakumeen oinarriko giza eskubideen urraketaren eta genero-indarkeriaren ikuspuntutik hura ezabatzeko, ez ikuspuntu juridikotik soilik, baizik eta ikuspuntu erreal eta eraginkor batetik”.

Igaro diren hamar urteetan, Protokoloari ez zaio inolako aldaketarik edo eguneraketarik egin, nahiz eta gerora genero-indarkeriari buruzko legeak onetsi diren, eta gai horretan aurrerapausoak

eman diren ekintza eta esku-hartzearen, elkarteen ekarpenen eta emakumeen genitalen ebaketari buruzko ikerlanen bidez.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Gehienez ere bi hilabeteko epean lantalde bat era dezan, Protokolo horren eguneraketa egiteko.

2. Lantaldean eta berraztertu beharreko Protokoloan honako hauek egon daitezen:

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen babesarekin eta arretarekin lotutako jarduketak-esparruetako teknikariak, bai eta berraztertu beharreko Protokoloa prestatzean ere.

- Talde parlamentario bakoitzeko ordezkari bat.

- Nafarroan Emakumeen Genitalen Ebaketa pairatzen duten emakumeekin zuzenean esku hartzen duten gizarte-entitateetako ordezkariak.

Nafarroan, 2023ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

10-23/MOC-00015. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da berehala har ditzan bere gain, bere aurrekontuaren kontura, Iruñeko eta Iruñerriko begizta desagerrarazteko obra guztiak, Etxebakoizko tren-geltoki berriko obrak eta Volkswagen Navarra zeharkatzen duen trenbidea desagerrarazteko obrak barne.

NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Navarra Suma talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala har ditzan bere gain, bere aurrekontuaren kontura, Iruñeko eta Iruñerriko begizta desagerrarazteko obra guztiak, Etxebakoizko tren-geltoki berriko obrak eta Volkswagen Navarra zeharkatzen duen trenbidea desagerrarazteko obrak barne.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (Na+) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

AHTa Nafarroaren garapen sozioekonomikora eta kanpo-proiektzioarako proiektu estrategikoa da, Europak trenbide-korridore hau aitortu eta lehenesten baitu Espainian dauden beste batzuekin alderatuta. Horregatik, funtsezkoa da lanak lehenbailehen amaitzea, garapen horri dagokionez atzean gera ez gaitzen.

Oso agerikoa da AHTaren lanak ez doazela beharko luketen erritmoan EH Bildu proiektuaren aurka dagoelako eta Alderdi Sozialistak Gobernua alderdi horri zor diolako.

Egin beharreko lanen artean daude Iruñeko trenbide-begizta ezabatzea eta geltoki berri bat eraikitzea Nafarroako hiriburuan. Alabaina, Nafarroako Gobernuak –kontu horietaz arduratu beharrean– iragarri du Volkswagen zeharkatzen duen trenbidea baino ez duela ezabatuko, Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko duen 40 milioi euroko kostu batekin.

Ekimen horrek, aldi berean ez bada begizta osoa ezabatzen, gelditu eta blokeatu egiten ditu AHTaren etorkizuneko garapenak. Gainera, nafar guztien funtsekin ordaindu nahi da, eta, aitzitik,

Espainiako Gobernuak ordaindu beharko luke, trenbidea ADIFen jabetzakoa baita.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari exijitzen dio berehala har ditzan bere gain, bere aurrekontuaren kontura, Iruñeko eta Iruñerri-

ko begizta desagerrarazteko obra guztiak, Etxabakoizko tren-geltoki berriko obrak eta Volkswagen Navarra zeharkatzen duen trenbidea desagerrarazteko obrak barne.

Iruñean, 2023ko otsailaren 9an.

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

10-23/MOC-00016. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan Gastiaingo Errota Berriko presa eraits.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez dezan Gastiaingo Errota Berriko presa eraits.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez dezan Gastiaingo errota berriko presa eraits, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaida dadin:

«Espedientearen erref.: 2022-0-1964 eta 2016-LIST-210 Errota berriaren presaren eraispenari buruzkoa, Acedo-Mendaza eta Gastiaín-Lana ibarra (Nafarroa) udalerrien artean, Gastiaingo Errota Berria izenez ezagutzen denari dagokiona».

Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren jendarean paratzeko iragarki horrek –eskatzailea lbaiek lehengoratzeko zentro iberiarra elkarrekin pribatua da– hizpide ditu aipatu errota zaharraren presa eraisteko lanak, Ega ibaiaren eremu horren balizko ibai-leheneratzea egite aldera.

Presa eta Gastiaingo Errota Berria izenez ezagutzen den eraikina Erdi Arokoak dira, eta Berrotza eta Lana ibarretan egon ziren era horretako irin-instalazioetatik azken gune historikoa dira. XVII. mendetik idatzizko aipamenak daude. Sarbide nagusia arku bakarreko eta tamaina handiko Erdi Aroko zubi batetik egiten da, eta zutik dirauen arren, ezinen lioke eutsi handik inolako makineria pasatzeari. Errota zaharreko presa eraisteak higadura handia eragin dezake zubi horren zimenduan, eta horrek zubiaren hondamena ekar dezake. Lehen mailako ondare-elementu bat da, eta edozein jarduketa egiteko Vianako Printzea Erakundeak –Nafarroako Gobernuko Kultura Departamentuaren mendekoa– erabakitzen duenari men egin behar zaio.

Gaur egun, paisaiak bere-bereak ditu eraikuntzen hondakinak eta presa txikia, eta, zalantzarik gabe, inguruko bazter interesgarrietako bat da, ez bakarrik ondareaz (materiala eta immateriala) eta historiari bezainbatean duen interesarengatik, baita flora eta fauna autoktonoaren aparteko biodibertsitatearen paisaia- eta kontserbazio-balioagatik ere, Lokizko Mendilerroko Kontserbazio Bereziko Eremuan baitago (Natura 2000 Sarearen parte da).

Azken horri dagokionez, aipatu errota zaharra eta presa kokatuta dauden Ega ibaiaren eremua eta fauna ugaria duen ingurune naturala da. Besteak beste, mustelidoak daude, hala nola desagertzeko arrisku larrian dagoen bisoi europarra (Mustela

lutreola), igaraba (*Lutra lutra*) eta espezie inbadi-tzaileak, esaterako, bisoi amerikarra (*Neovison vison*). Ega ibaiaren eremu hori habitat ezin hobea da bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*), zeina planetan galtzeko arrisku handiena duen espezieetako bat baita. Gaur egungo habitatetan egiten diren aldaketek eragin handia dute haiengan. Gogora ekarri behar dugu Europako hegoaldean espezie horretako populazio gutxi geratzen direla, eta horietatik, % 75 Nafarroan daude, batez ere Arabarekin mugakidea den Estellerriko eremu horretan.

Eremu horretan kiropteroak ere badaude, besteak beste, galtzeko arriskuan dauden lau saguzar espezie: Saguzar ipotxa (*Pipistrellus pipistrellus*), saguzar arratoi-belarri handi arrea (*Myotis emarginatus*), ferra-saguzar handia (*Rhinolophus ferrumequinum*) eta ferra-saguzar txikia (*Rhinolophus hipposideros*). Hain zuzen, Errota Berriaren presatik metro gutxi batzuetara kokatzen da Nafarroako koba-saguzarren kolonia nagusietako bat konserbatzeko proiektua, Europan aitzindaria dena.

Honako espezie hauek ere badaude: anisopteroak (burruntziak); narrastiak, esaterako, musker berdea (*Larceta bilineata*); eskailera-sugea (*Zamenis scalaris*); Montpellierko sugea (*Malpolon monspessulanus*); hegoaldeko suge leuna (*Coronella girondica*) eta suge biperakara (*Natrix Maura*).

Toki horretan hegazti asko daude, honako hauek aipagarrienak: martin arrantzalea (Alcedo

atthis), ur-zozoa (*Cinclus cinclus*) eta koartza gorria (*Ardea purpurea*).

Zalantzarik gabe, ibai-ingurune horri lotutako espezie eta habitat askotan eragina izanen dute hala presa eraisteak nola hura egin ahal izateko aurrez egin beharreko jarduketak esanguratsuek.

Eraitsi nahi den presa altuera txikikoa da, eta gutxienez bostehun urte daramatza hor. Ez du arazorik sortzen; aitzitik, ez du eraginik goragoko uretan, zati horretan ibai-kota altuera txikikoa baita, eta sortzen duen presa urria; hortaz, ingurumen-eragin positiboak ditu, eta presa eraitsiz gero, ekosistema kolapsatuko litzateke. Presa txikia ez dago aiurri-egoeran, eta ez du handitzen edozein uraldiren aurrean kaltea eragiteko arriskua.

Uste dugu presaren eremuan ibilgua iragazkortu daitekeela; horretarako, eskala bat eraiki daiteke ibaian dauden arrain-espezieentzat.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan Gastiaingo Errota Berriko presa eraits, eta neurri zuzentzaileak har ditzan egungo presak eragin ditzakeen ingurumen-afekzioei aurre egiteko, hala nola duela bost mende eraikitako presa horretara egokitutako eskala bat eraikitzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 9an.

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

10-23/MOC-00017. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia- tzen da Alderdi Karlistari dagokion aitortza publikoa eta erreparazioa egin diezaion, 1976ko maiatzaren 9ko gertakarien biktima politiko nagusia baita.

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Alderdi Karlistari dagokion aitortza publikoa eta erreparazioa egin diezaion, 1976ko maiatzaren 9ko gertakarien biktima politiko nagusia baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herritarrekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Joan den urtarrilaren 24an, Alderdi Karlistako ordezkari batek agerraldia egin zuen Parlamentu honetako Herritarrekiko Harremanetako Batzordearen lan-bilkura batean. Bertan, 1976ko maiatzaren 9an Jurramendin izandako gertakari larriei dagokienez, Carlos Arias Navaroren Gobernua, eta, bereziki, Manuel Fraga Iribarne (garai hartan Herrizaintzako ministroa) tartean sartzen dituzten dokumentu berriak aurkeztu zituzten. Gertakari horietan, bi pertsona hil zituzten balaz, eta hogeita hamarren bat zauritu.

Karlismoan aditua den Manu Martorell historialari eta kazetariak, ezagutzera eman diren dokumentuak aztertu ondoren, gertakari horien inguruko honako hau argitaratu du berriki (<https://www.publico.es/politica/manuel-fraga-otros-cargos-gobierno-arias-navarro-implicados-operacion-montejurra-76.html> #analytics-autor:lizado):

«Orain arte, tesi ofiziala gailendu da; alegia, Jurramendin 1976an gertatutakoa anaien arteko liskar bat izan zela, hau da, mugimendu legitimista horretako korrante desberdinen artekoa, eta Ordenako Indarrek nahikoa egin zutela ekidinez ezbehar hori are handiagoa izan ez zedin. Hala adierazi zuen Fragak berak egun horietan Espainiatik kanpo egindako bidaia batetik itzuli zenean, eta horrela onartu da publikoki eta ofizialki berrogeita sei urtez.

Nolanahi ere, orain ezagutzera eman den informazioaren arabera, Jurramendi 76 Operazioa –Bir konkista Operazioa izenaz ezagutzen dena– Gobernuaren instantzia batzuekin ados jarrita prestatutako plan bat izan zen, bereziki Fragak –halaber, Barne-arazoetarako lehendakariordea zen– zuzentzen zuen Ministerioarekin, xede zuena Alderdi Karlistari akabera ematea, hura oztopotzat jotzen baitzen Juan Carlos Borboikoa Espainiako tronuan finkatze aldera.

Karlismoaren espektro ideologiko zabal horretatik, Karlos Hugo Borboi eta Parmakoa buru zuen alderdi horrek baino ez zuen herritarren babes esanguratsua, bereziki Nafarroan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eremu batzuetan eta Kataluniako eta Valentziako barnealdean, milaka jarraitzaile biltzeko ahalmena baitzuen. Alderdi Komunistarekin batera 1974an Junta Demokratikoa delakoa sortu ondoren, Alderdi Karlista –”sozialismo autokudeatzailearen” aldekoa zen– erregimen frankistaren jarraipenari aurka egiten zion Platajunta izeneko erakunde bateratuaren kidea zen.

Karlismoaren gainerako alderdiak –erregimenari, eskuin muturrari edo Juan Borboikoaren (Juan Carlos I.aren aita) zaleak– agertoki politikoetik desagertu ziren jada, ez baitzuten elkarretartze masiboak egiteko ahalmenik; aitzitik, Alderdi Karlistaren gidaritzapean urtero egiten zen Jurramendiko hitzordua erregimenaren aurkako ekitaldi publikorik jendetsuena bihurtu zen –txosten ofizialen arabera–.

Aipatu dokumentuen arabera, José Luis Ruiz de Gordoia Nafarroako gobernadore zibila urtarri-

laren 5ean txosten bat igorri zien Fragari (komunikazio horietan “nire lagun maitea” esaten dio), Segurtasuneko zuzendari nagusiari eta Barne-politikako zuzendari nagusiari. Txostenean azaltzen zuen ekidin egin behar zela 1976an berriz egin zedila “Juan Carlos erregearen aurkako elkarretaratze subertsibo hori”, eta beste aukera batzuen artean, “tradizionalistak” laguntzeko aukera proposatzen zuen, Carlos Hugoren jarraitzaileak neutralizatze aldera.

Martxoan, Herrizaintzako ministroak berak Alderdi Karlistaren jardueraz ohartarazi zion, eta, apirilaren 19an, Segurtasuneko zuzendari nagusiak honako hau esan zion –hitzez hitz– Ruiz de Gordoari: “Jurramendiko elkarretaratzeaz arduratzeko ordua iritsi zaigu”. Horrela, Polizia Armatuaren, polizia sekretuaren eta Guardia Zibilaren laguntza eskaini zion.

“Konfidentziala” idazpurua duen komunikazio ofizial horretan aipatzen denarekin bat, helburua zen “Hugozaleak” maiatzaren 9ko elkarretaratzerara joatea ekiditea, eta premiatzen zituen kontrolak prestatu eta bestelako “neurri osagarriak” hartzeko beharra aztertzea. Gutun horretan, berriaz aipatzen ditu Sixto –bere anaia Carlos Hugorekin etsaitua–, José Arturo Márquez de Prado eta Ramón Merino buru tradizionalistak, esanez haien laguntza ematen ahal zitzaizela “komenigarri” jotzen zen balizko liskar batean.

Bi egun geroago, apirilaren 21ean, Ruiz de Gordoak jakinarazi zion Fragari bilera “sekretu” bat egin zela Iruñeko Tres Reyes hotelean aipatu Sixto eta Márquez de Pradorekin; antza, bilera horretan ministroak telefonoz jadanik emanda zizkion “orientazioak” beteko ziren. Nafarroako gobernadoreak Fragari azaldu zion topaketa “positiboa” izan zela, eta adierazi zela “aberriari zerbitzua emateko zeregin horretan laguntzeko prest zegoela”: “Ororen gaineratik” nabarmendu zuen Juan Carlos I.ari erakutsitako berriazko men egitea eta ez planteatzea “inolako arazorik gure Zuzenbideko Estatuaren babesean jaiotako monarkiari”.

Bilera horretan, solaskideek jakinarazi zioten Barne-politikako zuzendari nagusiarekin biltzea aurreikusita zutela, eta haien planetan zegoela Jurramendiko tontorra bi egun lehenagotik okupatzea eta Iratxeko monasterioaren eremua kontrolatzea, bertan hasten baita tontorrerako igotzea; bitartean, monasterioaren atzeko zelaietan propaganda-lanak egiten ziren igotzea Gurutzebidetik egiten zutenen artean.

Beste txosten batean, hori ere “ezkutuko eta konfidentzial” kalifikatua, “Jurramendi Tradiziona-

lista Operazioa” izenekoa, atxikita doa Fragaren txartel pertsonal bat, eta plan zehatz bat jasota dator ahalik eta jende gehien biltze aldera zenbait gobernadore zibilen eta ministerioren laguntzarekin (esaterako, Informazio eta Turismokoa), betiere “Juan Carlos erregearekiko leialtasuna” indartzeko asmoz.

Ekintza-plan zehatz horrez gain, ordena publikoko indarrei –Polizia Armatuari, polizia sekretuari eta Guardia Zibilari– zuzendutako “Jurramendi 76 Agindu berezia” eman zen; labur esanda, horren xedea zen elementu “subertsiboak” –horrela deitzen zieten Carlos Hugoren jarraitzaileei– iristea oztopatzea, eta, aitzitik, sarbidea erraztea gobernadore zibilek banatutako akreditazioak zituzten autobus eta ibilgailuei.

Paraleloan, Márquez de Pradok elkarrizketa batzuk izan zituen Campano jeneralarekin eta Guardia Zibilaren zuzendari nagusiarekin, Sáez de Santa María jeneralak hainbat urte geroago adierazi zuen bezala. Hura ere bilera horietako batean egon zen, zeinetan hizpide izan baitzuten armak eta irrati-telefonoak ematea. Era berean, Diego Carcedo kazetariari egindako adierazpenetan azaltzen zuen SECEdek (Dokumentazio Zerbitzu Zentrala) –Luis Carrero Blanco almiranteak sortutako zerbitzu sekretuak– eskuin muturreko nazioarteko terroristak bildu zituela, batez ere Triple A taldeko argentinarrak, neofaxista italiarrak eta OASEko eta PIDEko (diktadura portugaldarreko polizia sekretua) kide ohiak. Gerora, horietako batzuk GAL (Askapenerako Talde Antiterroristak) taldean sartu ziren, ETArekin zerikusia zuten pertsonak erailtzeko asmoz. Horietako bat Rodolfo Eduardo Almirón zen, zenbait urtez Fragaren bizkartzain izandakoa.

Maiatzaren 8ra arte (larunbata) –Jurramendiko elkarretaratzearen bezpera– harremanetan egon ziren gobernadore zibila eta Ramón Merino, afera horretan tartean sartuta zegoen pertsona nagusietako bat eta Juan Carlos erregearen konfiantzako pertsona; hain zuzen, arratsalde horretan harekin telefonoz hitz egin zuten. Preseski, Merinok berak erreserbatu zituen, Gobernu Zibiletik, Irache Hoteleko gelak, huraxe baitzen egun horietan Birkonkista Operazioaren kuartel nagusia. Egundakoa bat lehenago, Juan Carlos erregeak Isabel Katolikoa-
ren Gurutzea eman zion Ruiz de Gordoari, emandako zerbitzuak eskertzeko. Aintzatespen hori José María de Areilzak zuzentzen zuen Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bidez izapidetu zen.

Igandean, maiatzaren 9an, batez ere eskuin muturreko nazioarteko militante horiek eraso zuten Iratxeko monasterioaren eremua, eta aurreikusitako gabeko erresistentzia izan zuten, armak

erabili zituzten; gauza bera egin zuten mendi-tonorra militarri okupatu zutenek. Fernando Iglesias guardia zibil kamuflatuak, bere txostenaren arabera, erasotzaileek “gutxienez zazpi arma labur eta metraileta bat” erabili zituztela ikusi zuen. Larriki zaurituta geratu ondoren, han hil zen Aniano Jiménez Santos HOACeko (Ekintza Katolikoko Langile-ermandadea) karlista santandertarra. Era berean, Gurutze-bidearen goiko partean, Ricardo García Pellejero Lizarrako gaztea tiro batez hil zuten. Beste hogeita hamar lagun zauritu zituzten, hamar tirokatuta.

Jurramendin 1976ko maiatzaren 9an gertatutakoak akabera eman zion Arias Navarroren proiektu erreformistari –Otsailaren 12ko espiritua delakoari–, zeina jada ezbaian baitzegoen Gasteizko sarraskiaren ondoren: bertan, bi hilabete lehenago, Polizia Armatuak bereizkuntzarik egin gabe tiro egin zuen greba egiten ari ziren langile batzuek egindako bilera batean; horren ondorioz, bost langile hil ziren. Bi hilabete geroago, uztailean, Adolfo Suárezek Arias Navarro ordeztu zuen, eta Trantsizioari hasiera eman zitzaion. Kontua da maiatzaren 9 horretan Suárezek –garai hartan Mugimenduaren ministro-idazkaria zen– Fraga ordeztu zuela Herrizaintzako ministerioaren burutzan, “kasualitatez” ministerioaren titularra Espainiatik kanpo baitzegoen.

Ondoren, Suárezen Gobernuak dekretatutako amnistia aplikatzeak bertan behera utzi zuen Ordena Publikoaren Auzitegian abiatutako prozesu judiziala, zeinetan herri-akusazioak Manuel Fragak deklaratzeari nahi zuen. Horrela jo zen amaitutzat urte horretan nazioartean oihartzuna izan zuen eskandalu hura. 2003ko azaroan, Auzitegi Nazionalak, Barne Ministerioaren irizpidearen aurka, gertakari horiek terrorismo-ekintzatzat jo eta bi hildakoen aldeko epai bat eman zuen.

Orain ezagutu diren dokumentuak Alderdi Karlistak defendatzen duen tesiaren ildo beretik doaz; alegia, Jurramendiko gertakariak Estatuak zuzendutako operazio bat izan zirela Alderdi Karlistari zatituta zegoela, indarkeria erabiltzen zuela eta eskuin muturrekoa zela egozteko; hori ez zetorren bat errealitatearekin, baina azken berrogeita sei urteotan iritzi publikoak ontzat jo du.

Irudi horrek eta 1977ko lehen hauteskundeetan Suárezen Gobernuak Alderdi Karlista legeztatzeari ezetz esan izanak kalte politiko nabarmena

eragin zion, antolaketa-gaitasun handienetakoa zuen alderdi demokratiko bat izan arren; horren erakusgarri da aurrehautagitzak agudoen aurkeztu zituen bigarren alderdia izan zela, garai hartako PCE boteretsuaren ondoren. Alderdi Komunistak otsailaren 21ean jakitera eman zituen, eta karlistek hilabete bat geroago, martxoaren 16an. Hogeita hamabost hautesbarrutitan zerrenda osoak aurkeztu zituzten, erregimen frankistaren oposizio-alderdi nagusiak aurkeztutakoak baino bat gutxiago soilik».

Aipatutako lan-bilkuran, Alderdi Karlistako ordezkariak zenbait proposamen zituen dokumentu bat eman zieten talde parlamentarioei. Dokumentu hori oinarri hartuta, honako puntu hauek dituen mozio hau aurkezten dugu, Herritarrekiko Harremanetako Batzordean onesteko:

1. Nafarroako Parlamentuak, memoria historiko eta demokratikoari buruzko legedian ezarritako printzipioen arabera, aitortu egiten du Karlismoak frankismoaren aurkako borrokan eta kontzientziazioan Nafarroan egindako ekarpena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez Alderdi Karlistari dagokion aitortza publikoa eta erreparazioa egin diezaion –administrazio-egintza egokiaren bidez–, 1976ko maiatzaren 9ko gertakarien biktima politiko nagusia baita, eraso eskuin muturreko zenbait kidek egin baitzuten, Gobernuaren instantzia batzuen laguntzarekin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez “Memoria toki” gisa seinalezta dezan Jurramendin 1976ko maiatzaren 9ko gertakarietan eraildako bi pertsonen omenez –Ekintza Katolikoko Langile-ermandadeko kide Aniano Jiménez Santos eta Ricardo García Pellejero– Iratxeko monasterioaren ondoan paratutako monolitoa.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du desklasifikatu dezan 1976ko maiatzaren 9an Jurramendin (Nafarroa) izandako gertakariakin lotutako dokumentazio oro.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an.

Foru parlamentariak: Adolfo Araiz, Ainhoa Aznárez eta Marisa de Simón

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

6/23 Ebazpena, 2023ko otsailaren 9koa, Nafarroako Arartekoarena; honen bidez Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza (C maila) bat merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdian onartutakoen behin betiko zerrenda onesten da. Plaza horren deialdia enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan egin da.

Nafarroako Arartekoaren abenduaren 12ko 40/22 Ebazpenaren bidez Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza (C maila) bat merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdia onetsi zen; deialdi hori enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan egin zen eta 2022ko abenduaren 27ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Deialdiko 4.1 oinarrian ezartzen denarekin bat behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, Nafarroako Arartekoak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko du eta Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Arartekoaren erakundearen webgunean argitaratuko da. Era berean, oinarri horretan xedatzen da baztertutako hautagairik ez badago behin betiko zerrenda zuzenean onartu ahal izango dela.

Deialdian parte hartzeko eskabideak jaso ondoren egiaztatu da ez dagoela hautagairik baztertzeko arrazoirik, eta, ondorioz, bidezkoa da hautagaien behin betiko zerrenda zuzenean onartzea.

Beste alde batetik, deialdiaren 5.1 oinarriak epaimahai kalifikatzailearen osaera zehazten du eta ezartzen du Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordearen ordezkarien izendapena hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko dela.

Ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearekin eta erakundearen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko erregelamendurekin bat etorritik, honakoa

HAU EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza (C maila) bat merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdian onartutakoen behin betiko zerrenda onestea. Plaza horren deialdia enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan egin da.

Onartutako pertsonak:

ANAYA HUARTE, MARÍA ÁGUEDA
ARRARÁS ANDUEZA, MARÍA CONCEPCIÓN
BARBERENA BIURRARENA, ISABEL ÁNGELES
BARRUSO GONZÁLEZ, RAQUEL
BERUETE ESAIN, MARÍA ISABEL
CAMPIÓN LARUMBE, MARTA
CÁRDENAS ROLDÁN, ÁXEL
DÍAZ RAMOS, M^a ÁNGELES
ECHARRI SOTO, AINHOA
ECHEVERRÍA BELOQUI, MARÍA ANTONIA
ERBITI IRISARRI, LEIRE
FREIRE DUEÑAS, MARÍA FERNANDA
GADAÑÓN GÁRRIZ, ELENA
GARCÉS ASURMENDI, MARÍA
GASCUE OSCOZ, SAIOA
GOÑI ALLO, BLANCA UJUÉ
IDOATE PLATERO, BEATRIZ
INCHAUSTI ARCAYA, ÁNGELA
LAPIEZA ANTÓN, M^a DEL MAR
MALDONADO MERINO, PAULA
MATEOS MARTÍNEZ, M^a AURORA

NÚÑEZ IRIARTE, MIGUEL ÁNGEL
OJER GOÑI, JULIO
OSCÁRIZ ERASO, DIANA
PLANES ARAGONÉS, NURIA
PORTILLO ZALDUENDO, IOSUNE
RESANO PARDO, ANA ISABEL
RIPA ALBERDI, NEREA
RODRIGO JASO, MARÍA JESÚS
SALINAS BURILLO, ESTÍBALIZ
SAN ROMÁN APECECHEA, NEREA
SORIA MARTÍN, CHRISTIAN
VELASCO ALBÉNIZ, ELIANA
ZUBIETA AMEZTOY, ARÁNZAZU

Adierazi behar da ez dagoela bazterturik.

Bigarrena.- Epaimahaia osatzearen ondoreetarako Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeko ordezkarien izendapena argitaratzeko agindua ematea:

– Batzordekidea: Antonio Ansorena Urriza jauna

– Ordezkoa: Floren Enecoiz Segura jauna.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Arartekoaren webgunean argitara dadila xedatzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Aldez aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izanen zaio Nafarroako Arartekoari, hilabeteko epean, Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Iruñea, 2023ko otsailaren 9an

Nafarroako Arartekoa: Patxi Vera Donazar

